

EKINN+ GASTRO 2026 PROGRAMA: DONOSTIAKO GASTRONOMIAREN ARLOAN TALENTU GAZTEEN ENPRESA EKIMEN BERRI BEREZIAK HAZTEN ETA SENDOTZEN LAGUNTZEKO PROGRAMAN PARTE HARTZEKO OINARRIAK

ATARIKOA

Donostiako Sustapena sozietateak, 2025ean, estrategia eta kudeaketa-eredu berri bateranzko trantsizioaren aldeko apustua finkatu du, hirian berrikuntzaren erreferente bihurtzera bideratua eta Donostiako Berrikuntza Agentziaren papera betetzera bideratua.

Horrek esan nahi du Donostia Sustapenaren apustua dela pertsonari, enpresei eta proiektuei laguntzea abiapuntu gisa harturik pertsonalizazioa, kalitatea eta foku estrategikoa, eta hori guztia hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan egin nahi du.

Bilakaera horri eta markatutako helburuak bete izanari esker, zenbait ildo landu zituen ostalaritzaren esparruan, sektoreari aurre egin beharreko erronken neurriko laguntza emateko, guztia ere tokiko sare ekonomikoari modu transbertsean aplikatutako berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko apustu estrategikoaren barruan.

Ostalaritza sektorea estrategikoa da gure hirian, ez bakarrik enpleguan duen pisuagatik eta hirian jarduera ekonomikoa sortzeko egiten duen ekarpenagatik, baita hiriaren markari eta posizionamenduari berari egiten dion ekarpenagatik ere. Garrantzitsua da, orobat, bizikidetasun eta harreman ereduari egiten dion ekarria ere. 2024ko zenbakiei erreparaturik, sektore horrek 9.812 lanpostu sortu zituen, hau da, hiriko enpleguaren % 9,7 eta barne produktu gordinaren % 6,5. (Dirae) Eustat. 2024ko urtarrilak 1.

Sektore dinamikoa da, berritzeko eta egungo testuinguru globalera egokitzeko ahalegina egiten duena, baina bere sustraiak galdu gabe; hori guztia, gazteen zein hain gazte ez direnen, bertakoen eta munduko beste leku batzuetatik etorritakoen ekintzaile-talentuari esker, hirian esperientziak eta proiektu berriak eskaintzen jarraitzeko

Donostiaren gastronomiaren garapenak, tokiko idiosinkrasiari eta kulturari berari lotuta, zalantzarik gabeko izaera traktorea ematen dio hiriari, eta aukera-iturri da aisialdi- eta turismo-sektoreko balio-katearentzat eta, oro har, hiri-ekonomiarentzat.

Hala ere, sektoreak oraingo eta etorkizuneko erronkei egin behar die aurre, belaunaldien arteko erreleboari edo hiriak destino gisa duen lehia handitzeari dagokienez. Donostiak, horrenbestez, tokiko gastronomiaren eta lan egiteko modu horren lehiakortasun diferentzialari eusteko erronka du (berezia, benetakoa, kalitatezkoa, berritzailea eta hiriaren narratibari eusten diona), erreferentziazko posizionamenduari eusteko.

Alde horretatik, Donostia Sustapena sektoreari laguntzeko apustu eta estrategia zabal bat hedatzen ari da, eta laguntza ekonomikoak eta zerbitzu jakinak bideratzen ditu enpresak hobetzera, langileak trebatzera, talentua bultzatzera (ekintzaileei lagunduz) edo hiri eta

hiriari lotutako ekitaldiak sustatzera.

Sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko, Donostia Sustapenak gastronomiaren alorreko enpresa ekimenei ematen dien laguntza indartzea du helburu, betiere proiektuei laguntza integrala eta pertsonalizatua emateko ikuspegia oinarri gisa harturik, eta, bide horretan, plano bereizgarriak integratzen ditu, hala nola giza baliabideen kudeaketa, finantza kudeaketa, sustapena edo komunikazioa.

Hori dela eta, Donostia Sustapenak **EKINN+ GASTRO Programa** artikulatu du. Programa horrek, gastronomiaren arloan talentua duten pertsonen identifikazioa abiapuntu gisa hartuta, enpresa proiektuen garapena eta hazkundera bultzatuko du, betiere laguntza eman diezaieketen sektoreko beste eragile batzuekin sarean egindako lanak indartuta. Hori horrela, negozio gastronomikoko lankidetzaren eredu berriak garatzeko hazkuntza eremu egoki bat sortuko da, betiere berrikuntza eta jasangarritasun irizpideek bultzaturik.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

EKINN+ GASTRO Programaren helburua da gastronomiaren arloko enpresa ekimenei laguntzea, hiriaren erronka handienetako bati aurre egiteko: hau da, Donostia munduko hiriburu gastronomikoen artean mantentzea, nortasun propioa duen proposamen gastronomiko bat eskaintzeko gai den belaunaldien arteko erreleboa bultzatuz. Errelebo horrek gastronomiaren arloan talentua duten pertsonak identifikatzea eskatzen du, bai eta jatetxe eta sukaldaritza arloko proiektuak garatzen laguntzea ere.

EKINN+ GASTRO Programa Donostian kokatutako eta gazteek zuzenduriko enpresei zuzenduta dago, betiere gastronomiaren arloan eskalagarritasun eta ibilbide potentziala duen jatetxe arloko enpresa proiektu bat garatzen badute.

EKINN+ GASTRO Programa laguntza tresna integral gisa aurkezten da, eta ildo hauek biltzen ditu:

- **Aholkularitza espezializatua:** Sektoreko eragile eta enpresa adituek eskainitako laguntza prozesua, sukaldari gisa eta negozio errentagarrien kudeatzaile gisa dituzten gaitasunak hobeto ditzaten, berrikuntza eta jasangarritasun irizpideei segiturik.
- **Laguntza ekonomikoa**, inbertitzeko eta negozioaren aldeko apustua egiteko.
- **Finantzaketa eskura ipintzea**, lehentasunezko baldintzetan, barnean harturik Elkargiren abal funtsak.
- **Sustapenean, nabaritasunean eta posizionamenduan laguntzea**, sektoreko profesionalak eta gastronomiazaleak proposamen horiek ezagutu eta balioets ditzaten, hala estatuan nola nazioartean.
- **EKINN + GASTRO komunitatean** sartzea.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak BERROGAITA HAMAR (50.000) euro bideratuko ditu EKINN+ GASTRO programara. Zenbateko hori aldatu ahal izango da, Donostia Sustapenak hala erabakiz gero.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduntzat joko da laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatu behar duena edo hura ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, baldin eta betetzen baditu oinarri hauetan jasotako baldintzak, eta, zehazki, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Laguntzen onuradunak pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira, publikoak edo pribatuak, nazionalak edo atzerritarrak, baita aurrekoen nortasunik ez duten taldeak ere, baldin eta oinarriotan zehaztutako eskakizunak biltzen dituzten ordenamendu juridikoaren arabera eratuta badaude. Bazterturik geratzen dira ondare sozietateak; hots, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Oinarriotan zehazten dira laguntzak eskatzeko bete behar diren eskakizunak, baita eskakizun horiek egiaztatzeko modua ere; halaber, nahitaez bete behar da Dirulaguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan aurreikusitako guztia, zeina berariaz aplikatzekoa izango baita ondore hauetarako.

Pertsona fisiko edo juridikoek ezingo dute laguntza jaso:

- Ez baldin badituzte egunean zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, indarrean den legeriak ezartzen duen moduan.
- Dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak lortzeko aukera ukatzen dien ebazpen irmo baten bidez zehatuta badaude, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean badaude, barnean harturik sexu diskriminazioa egiteagatik zigortu dituztenak, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; era berean, ezingo dira izan laguntza eta dirulaguntza horien onuradun sexuagatiko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zehapen administratibo edo penala jaso duten pertsona fisikoak, betiere zehapen horretan ezarritako epean. Era berean, ezingo dute jaso laguntzarik edo dirulaguntzarik berdintasun plan bat indarrean ez daukaten enpresek, baldin eta estatuko araudiaren arabera horretara beharturik badaude, ezta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta ez badute egiaztatu ezarri dituztela neurriak sexu jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu indarkeriak prebenitzeko eta halako egoerei aurre egiteko, guztia ere estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritakoaren arabera.
- Zorrak baldin badituzte Donostiako Udalarekin edo/eta Donostia Sustapenarekin.

- Itzultzeke baldin badituzte, erabat edo partzialki, aurrez eskuratutako laguntzak, harik eta egiaztatu arte bueltatu dutela itzuli beharreko zenbatekoa.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak aurkeztu beharrik ez izateko. Gainera, administrazio jarduleak kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu; kasu horretan, berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du jarraian zehazten den informazioa administrazio publiko eskudunekin, prozedura honetako ebazpena emateko eta ordainketak egin ahal izateko:

- Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean edukitzearen ziurtagiriak.
- Onuradunaren eta sustatzaileen ekonomia jardueraren gaineko zergaren (EJZ) historikoa.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean edukitzearen ziurtagiriak.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean onuradunek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko dute horiek betetzen dituztela; horretarako, HAMAR (10) egun balioduneko epea izango dute, jakinarazten den egunetik zenbatzen hasita.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Onuradunek baldintza hauek bete behar dituzte deialdian parte hartzeko:

- a. Pertsona fisiko edo juridikoa izatea, izaera pribatukoa, eta Donostiako udal mugartean edukitzea lantokia eta jarduera.
- b. Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean, ekonomia jardueren gaineko zergan (JEZ) alta emanda egotea, gehienez ere **8 urteko antzinasunarekin**.
- c. Horrez gain, eskaera egiterakoan enpresa txiki edo mikroenpresa izatearen baldintza bete behar du. Enpresa txikitzat hartuko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergaren urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 13. artikuluan zehaztutako eskakizunak betetzen dituztenak.
 - I. Ustiapen ekonomiko bat gauzatzea.
 - II. Enpresaren aktiboa edo eragiketen bolumena ez izatea HAMAR (10) milioi euro baino handiagoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunean zehazten den moduan.
 - III. Langile taldea ez izatea batez beste 50 pertsonatik gorakoa.

IV. Ez edukitzea aurretik zehaztutako eskakizunen bat betetzen ez duten enpresen % 25etik gorako partaidetzarik, ez zuzenean, ez zeharka, salbu eta ez badira arrisku kapitaleko sozietateak edo funtsak, zeinei aplikatzekoa izango baitzaie aurretik aipatutako foru arau horretako IV. kapituluan ezarritako araubide berezia.

Merkataritza Kodearen 42. artikulua zehaztutako moduan, entitatea sozietate talde bateko kide denean, adierazitako langile taldearen neurriak talde horretako erakunde guztiei egingo die erreferentzia.

- d. Diruz lagundutako gastuak Donostiako udalerrian dagoen establezimendura bideratzea oso-osorik.
- e. Gastronomiaren arloko sukaldaritza eta jatetxe enpresa proiektuak izatea, eskalagarritasun eta ibilbide potentzialarekin.
- f. Onuradunak konpromisoa hartzea gutxienez pertsona bat esleituko duela programa hau garatzera, betiere ibilbide orrian eskatutako eta hitzartutako denboran.

Ezingo dira onuradun izan:

- a) Fundazioak eta elkarteak, irabazi asmokoak edo gabekoak.
- b) Ez dira izango onuradun mendeko entitateak, ez eta sektore publikoko entitateen, irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietateen eta/edo elkargo profesionalen % 25etik gorako partaidetzapekoak ere (sektore publikoko entitateetat hartuko dira sektore publikoko kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan bildutako entitateak; lege haren bidez, Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dira emakida kontratuak esleitzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak).

Donostia Sustapenak, kudeaketan parte hartzen duen erakunde laguntzailea den aldetik, eskubidea du beharrezkotzat jotzen duen informazio eta ekarpen guztiak eskatzeko, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatze aldera.

5. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDUKO DIREN KONTZEPTUAK ETA LAGUNTZEN ZENBATEKOA

EKINN+ GASTRO Programa laguntza tresna integral bat da, eta ildo hauek biltzen ditu:

1. Aholkularitza eta mentoring espezializatua 4 hilabetez.

Aholkularitza hori bi fasetan banatzen da:

- Fase intentsiboa (3 hilabete).
- Jarraipen fasea (1 hilabete).

Epe horretan eskainiko diren zerbitzuak hauek dira:

- Laneko ibilbide orria diseinatzea, lortu beharreko helburuekin eta garatu beharreko mugarriekin.

- Banakako tutoretza eta mentorizazioa, proiektuaren premien arabera, ezarritako helburuak lortzeko.

2. Eskuragarritasun laguntza.

Itzuli beharrik gabeko BOST MILA EUROKO (5.000 €) dirulaguntza, EKINN+ GASTRO Programan ezarritako helburuak lortzeko behar den dedikazioa ahalbidetzeko.

3. EKINN+ GASTRO laguntza:

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa HOGEI MILA EUROKOA (20.000 €) izango da, % 100ean finantza daitezkeen dirulaguntza kontzeptu hauetarako:

- ZERBITZU BERRIKUNTZA ETA PROPOSAMEN GASTRONOMIKOA: Aholkularitza eta laguntza eskatu ahal izango da proposamen gastronomikoa garatzeko (Donostiako Sustapenak eskainitakoaz bestelakoa), bai eta jarduera ekonomikoari lotutako beharrezko inbertsioetarako ere.
- FINANTZAKETA ESKURATZEA. Kanpoko aholkularitza gisa edo finantzaketa lortzarekin lotutako inbertsio gisa eskatu ahal izango da laguntza, betiere enpresak merkatuan hazteko eta eskalatzeko aukera izatera bideraturik.
- DIGITALIZAZIOA HOBETZEA: Digitalizazioa hobetzeko aholkularitza eta babesa jasotzeko eskatu ahal izango da laguntza, bai eta jarduera ekonomikoari lotutako eta softwarean zein hardwarean behar diren inbertsioetarako ere.
- PRESTAKUNTZA: Jarduerarekin berarekin eta bazkideen prestakuntza profesionalarekin lotutako prestakuntza gastuen kontzeptuan eskatu ahal izango da laguntza, gaitasunak hobetzera bideratuta, eta kanpoan geratuko dira tituluak, bidaia gastuak, joan-etorriak, ostatuak edo edozein dieta mota lortzeko gastuak (gosari gastuak, bazkariak edo afariak).
- ESPAZIOAK EGOKITZEA: Jarduera ekonomikoari atxikitako higiezinetan ekipamendu berria erostearen ondoriozko gastuetarako eskatu ahal izango da laguntza.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan xedatutakoaren arabera, ondasun inbentariagarriak erosten, eraikitzen, birgaitzen eta hobetzen badira, dirulaguntza eman zen xede zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak. Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, ez da izango bost urtetik beherakoa, eta gainerako ondasunetarako, berriz, bi urtetik beherakoa.

- MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO PLANA: Proiektuari lotutako komunikazio eta posizionamendu gastuetarako eskatu ahal izango da laguntza. Horietan sar daitezke publizitate kanpainak, web orriaren diseinua, sare sozialena...
- MERKATU BERRIEN GARAPENA: Laguntza eskatu ahal izango da merkatu berriak garatzeko aholkularitza eta laguntza gisa. Aholkularitzarekin loturiko gastu guztiek proiektu berritzailea nazioartekotzeko plan bat izan beharko dute, eta koherentzia gorde beharko dute aurkeztutako gastuekin.

Onuradunak bere tutorearekin itunduko ditu EKINN+ GASTRO Proiektuan diruz lagundu beharreko kontzeptuak, eta Donostiako Sustapenak baliozkotu eta onartu egin beharko

ditu justifikatu beharreko kontzeptuak eta zenbatekoak.

4. Elkargi Berme Funtserako sarbidea

Indarrean dagoen hitzarmenaren esparruan, Donostia Sustapenak aurkeztu ahalko ditu Elkargiren bidez finantzaketa eskatu behar duten proiektuak.

Donostia Sustapenak laguntza eskainiko du bermeekin finantzaketa behar duten proiektuetarako eragiketak aurkezten. Elkargik ontzat ematen dituen eragiketek baliatu ahal izango dituzte Donostia Sustapenak elkarrekiko berme erakunde horrekin proiektu berritzaileak finantzatzeko sinaturiko lankidetzan hitzarmenean jasotako baldintzak.

5. Sustapena, nabarmentasuna eta posizionamendua

Programan parte hartzen dutenei ikusgarritasuna eta zabalkundea emango zaie komunikabide espezializatuetan eta/edo erreferentziako ekitaldi enogastronomikoetan.

6. EKINN + GASTRO komunitatean sartzea.

Onuradunak EKINN+ GASTRO komunitateko kide bihurtuko dira. Komunitate horretan, gai berriak ezagutzeaz gain, proiektuak hazteko informazio interesgarria eskuratuko dute, bai eta proiektuak bistartzeko, egitasmoak lankidetzan sortzeko eta networkinga aberasteko ere.

6. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN

Laguntza hauek bateragarriak izango dira xede berdinarekin emaniko beste batzuekin, edozer administrazio edo erakunde emanak direla ere —izan publikoak edo pribatuak; izan nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak—, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

Laguntza horien azken hartzaile guztien kasuan —bai jarduera ekonomikoa gauzatzen duten pertsona fisikoak (autonomoak), bai pertsona juridikoak—, nahitaez bete beharko dituzte Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari buruzko Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko (EB) 2023/2831 Erregelamenduan ezarritako eskakizunak eta mugak.

Hori horrela, azken hartzaile bakoitzari eman ahal izango zaizkion *de minimis* laguntzen zenbateko osoa ezingo da izan 300.000 €-tik gorakoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan. Ondorio horietarako, araubide honen eraginpean daudenek erantzukizunpeko berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute hiru ekitaldi fiskaletan jasotako laguntzei buruz, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan dagokion muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez. Zenbaketa horretarako, laguntza emateko unea hartuko da kontuan.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza gordinaren zenbatekoaren baliokidea jakinaraziko zaio onuradunari, *de minimis* mugaren ondorioetarako.

Oinarriotan adierazitakoarekin bat, laguntzen zenbatekoak ezingo du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

7. ARTIKULUA. ESKAERAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Laguntza honen deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da, eta, ondoren, laburpen bat kaleratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasi, eta **deialdia itxi bitartean aurkeztu ahal izango dira laguntza eskaerak, hau da, 2026ko irailaren 10era arte**.

Eskaera egiteko epea amaitu ondoren, gerakinik badago edo zuzkidura ekonomikoa areagotzen bada, Donostia Sustapenak, egoki irizten badio, eskaera egiteko epea luzatu ahal izango du oinarri hauek aldatuta, kasu horretan, dagokion kanalen bitartez argitaratuko.

Eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira Donostia Sustapenaren webgunean (www.fomentosansebastian.eus).

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta behar bezala sinatuta egongo dira (hots, sinadura digitalarekin).

Edozein informazio edo kontsulta egiteko, 943 482 800 telefono zenbakira dei daiteke, edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikora idatzi, honako gai hau adieraziz: "EKINN+ GASTRO 2026 programa".

Eskabide orriarekin batera, eskatutako administrazio agiri guztiak aurkeztu beharko dira, baita dokumentazio teknikoa eta ekonomikoa ere.

Administrazio agiriak:

- **Eskaera eranskina**
- Laguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen «**banku datuen eranskina**», dagokion banku erakundearen ziguilarekin, edo banku erakundeak behar bezala zigilatutako banku agiri baliokidea. Ekintzaileen kasuan, justifikatzeko unean entregatuko da.
- Pertsona fisikoa izanez gero, **eskatzailearen NANA**.
- Pertsona juridikoa izanez gero, **eskatzailearen IFKren kopia**, eta, hala egokituz gero, ahalduaren NANA.

Onuradunak erabat hartzen du bere gain egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasuna, baita aurkeztutako gainerako dokumentazioarena ere.

Interesdunek dokumentu horietakoren bat aurkeztu badute Donostia Sustapenaren laguntza programaren batean parte hartzeko, ez da beharrezkoa izango atal honetan

eskatutako dokumentazioa berriz aurkeztea, betiere datuek indarrean jarraitzen badute eta ez badute izan aldaketarik.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzen diren unean entitateek ez badituzte egunean Udal Zerga Bilketak, Foru Ogasunak eta/edo Gizarte Segurantzak eskatutako ordainketak, egiaztatu egin beharko dute horiek betetzen dituztela. Horretarako, Donostia Sustapenak zuzenketa jakinarazpen bat bidaliko du.

- **Deskribapen memoria teknikoa eta ekonomikoa («Memoria teknikoa» eranskina).**

Memoriak garatu beharreko jatetxe proiektu gastronomikoa deskribatuko du. Atal hauek izango ditu:

1. Proiektuaren izenburua.
2. Enpresa eskatzailearen identifikazio datuak eta datu orokorrak.
3. Proiektuaren aurrekariak eta justifikazioa.
4. Proiektuaren eta helburuen deskribapen laburra. Proiektua gauzatzeko eta hazteko beharrak identifikatzea: finantzaketa, ekipoa areagotzea, aholkularitzako inbertsioa, inbertsioak, ekipamendua, eta abar.
5. Proposamen enogastronomikoa.
6. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, eta espero diren emaitzak: helburuak; kronograma; adierazleak; garapen komertzialaren, finantzarioaren eta giza kapitalaren deskribapena; eta aurreikusitako ustiapen kontua (3 urteko epea).
7. Lantaldearen deskribapena (barrukoa + kanpokoak), proiektuak zenbaterainoko langilez eta ekipamenduz hornitzen den erakusteko.
8. Enpresaren eskalagarritasunean eta hazkunderan egingo diren inpaktu potentziala (plantilla areagotzeko aurreikuspena, espazioak eta abar).

Memoria modu erraz eta argian idatziko da eta proiektua ulertzea zailduko duten teknizismoak saihestuko dira. Informazio zehatza izango du, 10. artikuluan zehazturiko balorazio irizpideak baloratu ahal izateko. Gomendatutako gehieneko luzera 8 orrikoa da.

8. ARTIKULUA. ESKAERETAKO HUTSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak dokumentazio guztia berrikusi ondoren, egiaztatzen bada ez dagoela osorik edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari **HAMAR (10) egun balioduneko epea** emango zaio akatsa zuzentzeko edo behar diren dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, baztertu egingo dela eskaera bestelako izapiderik gabe, eta, ondorioz, horren araberako ebazpena emango dela. Posible izango da administrazio agiriak zuzentzea, baita laguntza honekin loturiko agiri espezifikoak ere. Donostia Sustapenak proiektuaren memoriari buruzko argibideak eskatu ahal izango ditu, egoki baderitzo.

Zuzenketak posta elektronikoz jakinaraziko dira (onuradunak harremanetarako ematen duen helbide elektronikoa). (JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Dena den, web aplikazioan ere egongo dira eskuragarri jakinarazpenak, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Zuzenarazitako agiriak aurkezteko, hasierako eskakizuna egiteko erabili zen kanal berbera baliatuko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak.

Laguntzak emateko edo ukatzeko, Donostia Sustapenak berriazko ebazpena emango du, zeina posta elektronikoz jakinaraziko baitu ondoren. Jakinarazpenak web aplikazioan ere egongo dira eskuragarri, dagokion espedientearen barruan.

9. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikuluan aurreikusia, eta printzipio hauek hartuko dira oinarri: publizitatea, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, helburuak betetzeko eraginkortasuna, eta baliabide publikoak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

Norgehiagoka bermatzeko, proiektuaren memoria teknikoa eta ekonomikoa agiri baliozkotzat jotzen da proposamenak ebaluatzeko.

Kanpoko adituek ebaluatuko dituzte eskabideak, eta, gainera, onartutako proiektuen eta gastuen betearazpenaren jarraipena egin ahal izango dute, bai eta oinarri arautzaile hauen aplikazioan sortzen diren arazoak ebatzi eta interpretatu ere.

Honela ebaluatuko dira aurkeztutako proiektu guztiak:

- Memoria teknikoa eta ekonomikoa baloratzea («Memoria teknikoa» eranskina), gehienez ere 100 puntu, eta gutxienez 65 lortu behar dira proiektua onartu izan dadin.

Donostia Sustapenak elkarrizketa bat eskatu ahal du, batetik, proiektua eta talde sustatzailea zehatzago ezagutzeko, eta, bestetik, proiektuak adierazitako irizpideen arabera lortu duen hasierako balorazioa alderatzeko.

Ezaugarri hauetakoren bat duten tokiko proiektuak izan beharko dute:

- Sektoreko talentu gaztea sustatzea eta babestea dakartenak.
- Eskalagarritasun potentziala eta ibilbidea dutenak.
- Berrikuntza irizpideak jasotzen dituztenak.
- Enogastronomiaren eremuan lurraldeari balioa ematen diotenak.

Proiektuak balorazio irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

1. Proposamen gastronomikoa: proposamenaren berezitasuna, kontzeptuari, produktuari eta zerbitzuari loturik.	40 puntu.
2. Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa.	35 puntu.
3. Enpresaren eskalagarritasunean eta hazkundean egingo diren gastuen inpaktu potentziala.	20 puntu.
4. Proiektuan genero ikuspegia txertatzea: gehienez ere 5 punturekin baloratuko da proiektua gauzatzen duen plantillari berdintasunaren arloan gutxienez 2 orduko prestakuntza emateko konpromisoa.	5 puntu.
PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA, GUZTIRA	100 puntu.

Eskaera bat hautatu ahal izateko gutxienez 65 puntu lortu beharko dira; beraz, kanpoan geratuko dira gutxieneko puntuazioa baino txikiagoa lortzen duten proiektuak.

Donostia Sustapena harremanetan ipini ahal izango da gutxieneko puntuazio hori gainditzen ez duten baina 50 puntu edo gehiago lortzen dituzten proiektuetako eskatzaileekin, proiektua behar bezala ulertu dela egiaztatzeko.

Onartutako proiektuak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira, eta irizpide horiek aplikatuz balioespenik handiena lortu dutenak esleituko dira, deialdian kreditu erabilgarriaren barruan finkatutako mugarekin. **Ebazpena emateko unean, 25.000 euroko laguntza emango da onetsitako proiektu bakoitzeko.**

Berdinketa gertatuz gero bi eskaera edo gehiagoren artean, 1. ebaluazio irizpidean puntuaziorik handiena dutenei emango zaie lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, 2. ebaluazio irizpidean puntuaziorik handiena duenari emango zaio lehentasuna, eta, berdinketak jarraitzen badu, 3. ebaluazio irizpidearen arabera. Berdinketak jarraitzen badu, eskabideak aurkezteko hurrenkeraren arabera lehenetsiko da.

Behin-behineko lehen ebazpena aurkeztuko da, eta 10 egun baliodun izango dira alegazioak aurkezteko. Epe hori igarotzen denean —eta alegazioak aztertu ondoren, halakorik balego—, behin betiko ebazpen proposamena egingo da.

Eskabideak aukeratzekoan, erreserba zerrenda bat eratu ahal izango da, puntuazioaren arabera ordenatuta. Hori horrela, erakunde onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio edo aurrekontua handitzen bada, Donostia Sustapenak zerrenda horretako eskatzaileari laguntza ematea onartu ahal izango du, beste deialdi bat egin beharrik gabe.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea lau (4) hilabete izango da, deialdia ixten den egunetik zenbatzen hasita, eta epe horren barruan ez dira kontuan hartuko dokumentazioa zuzentzeko epeak. Laguntza emateko ebazpena ezarritako epean ez jakinarazteak ez du ekarriko laguntza ematea.

Eskaerari aldeko ebazpena eman ondoren, EKINN+ GASTRO programari ekingo zaio, eta fase intentsiborako ezarritako helburuak eta mugari indibidualak markatuko dira (parte hartzen duen proiektu bakoitzaren ibilbide orria).

Donostia Sustapenak berariazko ebazpen bidez emango edo ukatuko du laguntza.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabidearen eranskinean emandako helbide elektronikora (jakinarazpenetarako helbide elektronikoa). Web aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, dagokion espedientearen barruan.

Emandako ebazpenarekin desadostasunik izanez gero, alegazioak aurkeztu ahal izango dira gehienez ere hilabeteko epean, ebazpen honen egunetik zenbatzen hasita. Horretarako, Donostiako Sustapenarekin jarri beharko da harremanetan, eta hark emango du izapideok egiteko prozeduren berri. Donostia Sustapenak ezarritakoa bete beharko da, eta bi alderdiak, kasuak hala eskatzen duenean, Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende egongo dira.

10. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagundu daitezkeen gastuen **egikaritze epea laguntzaren argitalpen-datatik hasi eta justifikazio-epemugara artekoa izango da, irailaren 7ra arte izango da**. Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko fakturek ere aldi horretan jaulkiak izan beharko dute. Fakturek osorik ordainduta egon beharko dute, onartu ahal izateko. Salbuespen kasuetan, eta behar bezala justifikatuta, Donostia Sustapenak hartu ahalko ditu kontuan aipatutako epeez bestelako egikaritze eta justifikatze epeak.

Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriei argi eta garbi erantzuten dietenak eta oinarriotan ezarritako epearen barruan gauzatzen direnak. Diruz lagundutako gastuen eskuratze kostuak ez du gaindituko inola ere merkatuko balioa.

Ez dira kontuan hartuko 100 euro baino gutxiagoko gastua frogatzen duten fakturak eta agiriak, zergak kenduta. (Gizarte Segurantzako gastuak edo nominak izan ezik).

Txartelarekin, banku transferentziarekin edo helbideratze ordainagiriarekin egindako ordainketen egiaztagiriak baino ez dira onartuko. Egiaztagiri horietan, eragiketari buruzko informazioa zehaztu beharko da (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data eta abar). Ez da onartuko banku mugimenduen zerrendarik onartuko, ez eta BIZUM bidez egindako ordainketarik ere.

Diruz laguntzeko moduko gastuei aplikatzekoa izango zaie Dirulaguntzen Lege Orokorreko 31. artikuluan berariaz zehaztutakoa.

Ezingo dira finantzatu tankera honetako gastuak:

- Gauzatan egindako ordainketak.

- Enpresan ohiko edo errutinazko jarduerak gauzatzea helburu dutenak, hau da, berrikuntza edo hobekuntza nabarmenik ez dakartenak edo merkatu berriak irekitzea eragiten ez dutenak, betiere egungo egoerarekin alderatuta.
- Oinarrizko ikerketa helburu dutenak, hau da, aurrez zehaztutako aplikaziorik edo erabilerarik izan gabe abiarazten direnak, eta, beraz, ezinbesteko baldintza izango da pizgarria lortzeko helburu praktiko espezifikoko bat bilatzea eta enpresan duen aplikazio posiblea.
- Erakundea indarreko araudira egokitzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzea.
- Enpresan lehendik dagoen aktibo finko bat hobetzea (softwarea, aplikazioa, makineria, eta abar).
- Webguneak garatzea, proiektu berritzailea eta lehiakortasuna hobetzea berean ez baldin badaude, behintzat.
- Material berriak erostea, ibilgetu materialean eginiko inbertsioak... zeregin errepikariak garatzeko.
- Talde bereko enpresen artean garatutako zerbitzuak; beraz, ez dira onartzen barne fakturazioko prozesuak.
- Kontabilitateko, liburu edukitzako, auditoretzako eta aholkularitza fiskaleko eguneroko jarduerak, lehiakortasuna hobetzea dakarren proiektu baten garapenari lotutako aholkularitza ez denean.
- Enpresak ondoren merkaturatzen dituen produktu komertzialak eta/edo lehengaiak erostea, eta laginak egiteko edo ekoizteko produktuak erostea.
- Ohiko material suntsikorrak eta bulegoko materiala erostea.
- Ohiko gastuak eta, bereziki, argiaren, uraren eta komunikazioen gastuak (telefonoa eta Internet).
- Interesak, errekareruak, zergak eta administrazio zehapenak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Otordu tiketak, dietak, kilometroak, gasolina eta abar.
- Enpresako langileen soldatak eta ordainsariak.
- Autonomoen kuotatik eratorritako gastuak.

Oro har, Donostia Sustapenak baimendu gabeko gastu guztiak.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZA JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Laguntza bi zatitan ordainduko da, «Lehenbiziko justifikazioa» eta «Amaierako justifikazioa» izeneko ataletan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.

1. Lehenbiziko justifikazioa:

Lehenbiziko justifikazioa programaren fase intentsiboa amaitutakoan aurkeztu ahal izango da (aholkularitzaren lehen 3 hilabeteak amaitzean) eta ordainketa hauek eskatu ahal izango dira:

- Eskuragarritasun laguntza: 5.000 €
- EKINN+ GASTRO laguntza partziala edo osoa: gehienez 20.000 €

Eskuragarritasun laguntza ordainketa bakarrean pagatuko da, EKINN+ GASTRO aholkularitza zerbitzuaren fase intentsiborako ezarritako mugariak amaitu eta lortu ondoren, eta betetzen denean, orobat, onuradunak hartzen duen dedikazio konpromisoa.

Salbuespen kasuetan, behar bezala justifikatuta, Donostia Sustapenak zehaztu ahalko du beste epe bat.

EKINN+ GASTRO laguntza ordaintzeko, aukeran izango da justifikazio partzial bat aurkeztea (gastu osoa gauzatu ezin izan den kasuetan) edo justifikazioa osorik aurkeztea.

Donostia Sustapenak, justifikazioan aurkeztutako kontzeptu eta gastuak aztertu, eta aukeragarriak diren ala ez ebaluatuko du.

Eskuragarritasun laguntza ordaintzea eskatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) **Eranskina: «Ordainketa Eskaera»**
 - a. Gainera, EKINN+ GASTRO laguntzari dagozkion gastuak ordaintzeko eskatzen bada, dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:
- b) Programaren bidez abian jarritako proiektuaren edo jardueraren garapena deskribatzen duen eta enpresak egindako lan eraginkorrari buruzko emaitzak jasotzen dituen **emaitzen memoria**. Behar adina ebidentzia jaso behar ditu, frogatu ahal izateko ezarri direla hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak.
- c) **«Finantza Memoria» eranskina.**
- d) Dirulaguntzaren xede diren zerbitzu edo produktu kontratatuen **fakturak**, 100 eurotik gorako gastuenak, zergak kanpo utzita.
- e) **Egindako ordainketen egiaztagiria.**

2. Amaierako justifikazioa:

Diruz lagundu daitezkeen eta lehenbiziko justifikazioan aurkeztu ez diren EKINN+ GASTRO laguntzako gainerako kontzeptuetarako, edo EKINN+GASTRO laguntza osorako (20.000 €), azken justifikazio bat aurkeztu beharko da. Azken justifikazio horretan, diruz laguntzeko modukoak diren eta onarturik dauden kontzeptu guztiak bilduko dira.

Oro har, hau da justifikatzeko epea:

Azken justifikazioa aurkezteko azken eguna 2027ko irailaren 30a izango da.

Justifikatzeko ezarritako epea igaro eta ez bada aurkeztu dagokion dokumentazioa, Donostia Sustapenak gehienez ere 15 eguneko epea eman ahalko dio onuradunari agiri horiek aurkezteko, jakinarazpen hori egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren ez badu aurkeztu dagokion dokumentazioa, ezetsizat emango da laguntza, eta, beraz, galdu egin duela kobratzeko eskubidea —edo, kasuaren arabera, galdu egin dela jasotako zatia itzultzeko betebeharra—.

Ordainketa bakarra egingo da, dokumentazio hau aurkeztu ondoren:

1. **Eranskina: «Ordainketa eskaera»:**
2. **«Emaitzen memoria» eranskina**, proiektuaren garapena deskribatzen duena eta enpresak lortutako emaitzak eta mugarriak jasotzen dituena. Hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak egin eta ezarri zaizkiela frogatzeko behar diren

ebidentziak jaso behar ditu, baita enpresaren hazkundera izan duen eragin positiboa ere, alderdi guztietan.

3. **«Finantza Memoria» eranskina.**
4. Dirulaguntzaren xede diren zerbitzu edo produktu kontratatuen **fakturak**, 100 eurotik gorako gastuenak, zergak kanpo utzita.
5. **Egindako ordainketen egiaztagiria.**

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

Dokumentazio guztia aztertu ondoren, egiaztatzen bada benetan jasotako zerbitzuak ez datozela bat —osorik edo partzialki— onartutako jarduketekin edo justifikatu diren gastuak dituzten kontzeptuekin, justifikatutako jarduketei dagokien zati proportzionala baino ez da ordainduko.

12. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZAK EGIKARITZEA ETA HAIEN JARRAIPENA

Diruz lagundutako ekintzen eta onartutako proiektuen jarraipena horiek gauzatzen diren bitartean egin ahal izango da, baita amaitu ondoren ere.

Donostia Sustapenak jarraipen horretarako beharrezkotzat jotzen duen informazio tekniko edo ekonomiko guztia eskatu ahal izango du, laguntza gauzatzeko eta justifikatzeko prozesuan eskatzen den gutxienezko dokumentaziotik harago.

Laguntzen jarraipenaren eta justifikazioaren emaitzen ondorioz, baliteke emandako laguntzak gutxitu ahal izatea, edo dirulaguntzarekin bat ez etortzea deialdi honetan eta hurrengoetan.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak oinarri arautzaile hauetan adierazitako epean eta moduan gauzatu behar dira, nola eta Donostia Sustapenak ez duen bestelakorik baimentzen arrazoi justifikatuak direla eta. Kasu horretan, emandako laguntzaren zenbatekoa ere aldatu ahal izango da.

Jarraipenaren emaitza gisa ikusten bada erakunde onuradunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ez direla betetzen laguntza ematek eratorritako betebeharrak, datuak faltatzen direla, zehaztasun faltak ageri direla edo datuak falta direla, edo ikusten bada, orobat, jasotako zenbatekoak laguntza eman zen helburuetarako ez beste batzuetarako aplikatzen direla —osorik zein partzialki—, bidezko diren lege ekintzak abiaraziko dira, eta, kasuaren arabera, barnean hartuko da beste edozein laguntza edo dirulaguntza jasotzeko desgaitzea. Horrek ez du eragotziko laguntzaren zenbatekoak itzuli beharra, dagozkion berandutza interes eta guzti.

13. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntzon onuradunek beren gain hartuko dituzte Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak, eta berariaz aplikagarritzat joko dira ondorio

horietarako, betebeharrak hauei erreferentzia eginez (nahiz eta horietara bakarrik mugatu ez):

- a) Ekarpena diruz lagundutako jarduerak egiteko erabiltzea.
 - b) Aurkeztutako proiektuaren baldintzak errespetatzea eta betetzea, Donostia Sustapenak berariazko baimena eman ezean.
 - c) Diruz lagundu daitezkeen gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduaren eta denboraren barruan.
 - d) Donostia Sustapenak eskatutako datu estatistikoak betetzea, eta, zehazki, programa honetan parte hartzen duten pertsonen mikrodatuei buruzkoak.
 - e) Jasotako laguntzen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, egiaztapen eta/edo ikuskapen jarduketak egin ahal izateko, betiere aplikatzekoa den araudian ezarritako epean.
 - f) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea.
 - g) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta egonez gero.
 - h) Egunean edukitzea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
 - i) Laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo zein objektibo aldatu baldin bada, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
 - j) Emandako laguntzei buruz Donostia Sustapenak bere eginkizunak betetzeko eskatzen duen informazio guztia jakinaraztea.
 - k) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
 - l) Donostia Sustapena aipatzea laguntza hauen xede diren proiektuak sustatzeko eta hedatzeko jardueretan, eta, horretarako, haren irudi instituzionala eta legenda sartzea egiten diren komunikazio euskarrietan (web orria, kartelak, mailingak, eta abar).
 - m) Donostia Sustapenak deitzen dituen bileretara joatea, laguntza hauen xede diren proiektuen jarraipena eta bilakaera egiteko.
 - n) Jasotako laguntza dela-eta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, eta abar).
 - o) Laguntzaren xede den proiektuan aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein egoera gertatuz gero, Donostia Sustapena jakinaren gainean ipintzea.
 - p) Donostia Sustapenari jakinaraztea EKINN+ GASTRO programa gauzatzeko ari denean proiektuak beste azelerazio edo *mentoring* programa batean parte hartzea erabakitzen duen, bai eta eskaera egiteko unean EKINN+ GASTRO programan parte hartzen ari den ere.
 - q) Donostia Sustapenari laguntzea, beharrezkoa izanez gero, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta haren esku ipintzea eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia.
 - r) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
 - s) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
 - t) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia, eta abar), sustapen eta hedapen materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan.
- Onuradunek aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari, testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko hilean), betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira.

<http://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>

14. ARTIKULUA. LAGUNTZAK ITZULTZEA

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunak jasotako laguntza ekonomikoa itzuli beharko du, baita diruaren legezko interesa ere —jarritako zenbatekoak ordaindu diren unetik—, honako kasu hauetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu astunean eta/edo behin eta berriz bete ezean. Ez-betetze astuntzat eta/edo errepikatutzat joko da oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako edozein datu, ziurtagiri, txosten edo dokumentazio faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo zati bat desbideratzea, aurreikusitakoak ez diren beste helburu batzuetarako.
- Laguntzaren xedea justifikatzeko betebeharra ez betetzea oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan, eta ez egotea behar adina justifikatuta.
- Onuradunaren jarduerari buruz egin daitezkeen egiaztatze eta ikuskatze jarduketei kontra egitea, aitzakiak jartzea, eragozpenak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate, erregistro edo dokumentu betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregulartasuna, edo edozein administrazio edo erakunde helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak eskuratzea, izan horiek publikoak edo pribatuak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.
- Jardueraren gainfinantzaketa gertatuz gero, gainfinantzatutako zenbatekoan.
- Kontratua deuseztatzea objektibotzat jotzen ez diren edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

Aurrekoa kontuan hartuta, une oro bete eta mantendu beharko dira laguntza hauek jaso ahal izateko eskatzen diren baldintzak. Bestela, Donostia Sustapenak laguntzak itzultzeko eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze astunenen kasuan —hala nola datuak faltsutzea edo jasotako laguntza osoa edo haren zati bat desbideratzea—, Donostiako Sustapenak ahalmena izango du emandako laguntza baliogabetzeko eta, kasuaren arabera, jasotako zenbateko guztiak itzularazteko. Horretaz gainera, jasotako zenbatekoaren boskoitza ordainarazteko eskatu ahal izango du.

Laguntza itzultzeari dagokionez, Donostiako Sustapenak onuradunari jakinaraziko dio oinarriotan ezarritako arrazoiren bat gertatzen dela, ondoren deskribatutako baldintzetan.

Itzulketa laurogeita hamar egun naturaleko epean egin beharko da, Donostiako Sustapenak onuradunari artikulua honetan aurreikusitako itzulketa arrazoiren bat dagoela burofax bidez bidaltzen dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko paragrafoetan ezarritakoaz gainera, Donostiako Sustapenak berea du Donostiako Sustapena SAK eskainitako beste edozein laguntza edo onuratan BI (2) URTEKO epean parte hartzea galarazteko eskubidea, ikusiz gero pertsona fisikoek

edo juridikoek ez dutela bete zabarkeriagatik oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat, edo, haien jokabideak direla eta, fede onaren oinarritzko arauak urratu baldin badira.

15. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da Donostiako Udalak tratatuko dituela ematen dizkiguzun datu pertsonalak, tratamenduaren arduradun gisa, eta kudeatu, berriz, Donostiako Sustapena SAK kudeatuko du informazioa, tratamendu-eragile gisa.

Laguntza eskaera izapidetzea eta kudeatzea da tratamenduaren helburua.

Tratamenduaren zilegitasun oinarria Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua da; halaber, tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde gauzatutako eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak egikaritzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena; eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, nahitaezkoa izango da datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa ematea, eta datu akastunak emateak edo datuak ez hornitzeak eragotzi egingo du eskabidea kudeatzea.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea, eta, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera, Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko da.

Ez dago aurreikusita datu jakinarazpen gehiago egitea hirugarrenei, legeak hala agindu ezean, eta ez dago aurreikusita, era berean, datuen nazioarteko transferentziarik.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak biltzeko garaian kontuan harturiko helburua betetze jarraitzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denbora guztian gordeko dira. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian ezarritakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute hala dagokionean, baita araudi honetan aurreikusitako bestelako eskubideak ere. Horretarako, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuarekin ipini beharko da harremanetan (Ijentea 1, 20003 Donostia).

Zure eskubideak baliatzeko garaian ez badizute behar bezala erantzun, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas

Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, alde zurretik eta aukeran, harremanetan jarri ahal izango zara Datuak Babesteko Donostiako Udaleko ordezkariarekin: dbo@donostia.eus.

16. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean jartzea eta onespena.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, eta argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Eskaerak aurkezteak esan nahi du interesdunek erabat onartzen dituztela oinarriok.

Erantzukizunetik salbustea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horiengatik.

17. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak oinarri hauetan jasotako arauen arabera zuzenduko dira, eta, modu osagarrian, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan jasotakoaren arabera (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsia da), nahiz eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean bildutako kudeaketa irizpideei eta lege horretako 20. artikulua bildutako informazio printzipioei dagokienez bakarrik izan — hori guztia lege horren 3.2 artikulua bigarren paragrafoaren arabera, hark zehazten baitu aplikazio hori—.

Bestela, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua aplikatzekoak izango dira oinarriotan lege testu horien berariazko aipamena egiten denean.

Donostian, sinaduran ageri den egunean.

Iñigo Olaizola Arcaute

Donostia Sustapeneko zuzendari kudeatzailea